

# Ramuntxo Camblongen hilberri-txostena (1939-2021)

ALFARO, Gexan  
Euskaltzain urgazlea

Ramuntxo Makean sortu zen, 1939ko azaroaren 11n. «Afrikar erran zuhurrak» dioena aplikatu du bere bizitza osoan zehar; hona zer dioen zuhur hitz horrek: «Bakarrik fiteago goaz, baina elkarrekin urrunago!». Bere bizitzan, egitasmo anitzetako sustatzaile eta parte hartzaile izan da Ramuntxo, bertze hainbat eta hainbat herritarrekin batera.

Ramuntxok ingeniaritza ikasketak egin zituen Parisen eta Angersen, eta Hazparneko San Josepe lizeoko irakaslea izan zen 1966tik 1975era. Lan hori utzirik, Milafrangako Copelec kooperatibako sortzaileetarik bat izan zen 1975ean, eta 1998ra arte kooperatibako zuzendari aritu zen. Eta gero, Sokoia enpresako kanpo harremanez arduratu zen, 2002an erretreta hartu zuen arte.

Garai horretan guzian, lan profesionalarekin batera uztartu zuen bere lan militantea, euskalgintzan eta kulturgintzan: 1969an Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen elkarteko sortzaileetarik bat izan zen, eta 1972an Elkar argitaletxearen sustatzaileetarik bat ere bai. Horrez gain, Euskal Herriko Kultur Zentroko lehen-dakari gisa aritu zen 1984tik 1988ra, eta EKE Euskal Kultur Erakundeko buru egon zen beste lau urtez: 1990etik 1994ra bitartean. Bestalde, kristau gisa, Fededunak deitu elkarteko kide ere zen.

Horiez gain, Ramuntxo euskal idazle bat ere bazen: *Herria* Baionako astekarian eta *Jakin* Arantzazuko aldizkarian artikuluak idazten zituen, baita *Euskaldunon Egunkarian* ere. Eta bururatzeko, hona ene agur gisa, moldatu dizkiodan hiru bertso:

Ramuntxo Camblong, adiskidea,  
Lur honetako bidea  
Burrutua duk berrikitan...  
Eta ongi duk betea...  
Bai herrigintzan, bai kulturgintzan,  
Egin duk hire partea...  
Hainbat elkartetan erabiliz,  
Oi, hire jakitatea.

Afrikar zuhur-hitz batek zio:  
«Bakarrik bai fiteago  
Joaiten dela, baina elkartuz  
Gero aise urrunago...»  
Hire bizitzan hori bete duk  
Lagunduz elkarte frango:  
Copelec, Elkar, Seaska, Soko,  
Kultur Erakundea gero...

Hilabeteak Mari Etxean  
Iragan dituk Angelun.  
Bisitaldietan solastatzen  
Gintian nola bi lagun...  
Kantu xaharrak errepikatuz  
Ibiltzen gintian edonun...  
Ikus arte bero bat baizik ez  
Daiat erranen gaur egun!